

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI), 2009ko URTARRILA

Bidaiarien sarrerak %-15 gutxitu ziren 2009ko urtarrilean

Gaualdiak %-16 gutxitu ziren 2008ko urtarrilaren aldean

2009ko urtarrilean, 100.983 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 18.500 sarrera gutxiago, hau da, %-15eko jaitsiera, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %-27 jaitsi ziren Araban, %-17 Gipuzkoan eta %-11 Bizkaian.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak %-14ko jaitsiera izan dute eta atzeritik etorritakoenek %-20koa. Estatutik datozen bidaiarien kopurua hiru herrialdeetan jaitsi da : Araban %-28, Gipuzkoan %-14 eta Bizkaian %-9. Atzerriko bidaiarien kopurua hiru herrialdeetan jaitsi da, baita ere: %-24 Araban eta Gipuzkoan, eta %-16 Bizkaian.

Estatutik etorritako bidaiarien artean, gehitu egin ziren Galizia, Balear uharteak, Murtzia, Ceuta eta Melillatik etorritakoak. Ehuneko handiago batez jaitsi dira Katalunia, Andaluzia, Aragoi eta Gaztela eta Leondik etorritakoak. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Danimarka, Herbehereak eta Iberoamerikatik; aitzitik, Frantzia, Italia, Portugal, Erresuma Batua eta Belgikatik etorritakoen kopurua gutxitu egin da, besteak beste.

Gaualdiak, 2009ko urtarrilean, 182.863 izan ziren, aurreko urteko urtarrilean baino %-16 gutxiago, hots, 36.000 gaualdi pasa gutxiago. Gaualdiek urte batetik bestera bilakaera negatiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %-21, eta Bizkaian eta Gipuzkoan %-16.

Euskal AE osotara hartuta, bidaiarien batez besteko egonaldia 2008ko urtarrileko 1,83 egunetik aurtengo 1,81 egunera pasa da. Indize hau %-5 murriztu da Bizkaian, eta Araban (%8) eta Gipuzkoan (%1) hazi.

Plazakako betetze-maila %-22 jaitsi eta iazko urtarrileko %33,25etik aurtengo %26,09ra pasa da. Jaitsiera honek hiru lurraldeei eragin die: Araban %-28, Bizkaian %-22 eta Gipuzkoan %-18.

Nekazalturismoa: Bai sarrerek, bai gauldiek lehengoan iraun dute Euskal AEn, 2008ko urtarrilaren aldean

Joan den urtarrilean 4.146 bidaiari-sarrera izan dira Euskal AEko nekazalturismoetan, hots, aurreko urteko hilabete berean baino %-1 gutxiago; bidaiari kopurua %17 gehitu da Araban eta %7 Gipuzkoan; %-24 jaitsi da Bizkaian. Estatutik etorritako bisitariak %3 handitu ziren Euskal AEn: Bizkaian %-22 jaitsi ziren, baina igo Araban (%34) eta Gipuzkoan (%8). Atzerritarrek %-39 murriztu zuten euren presentzia Euskal AE osoan, hiru herrialdeetan jaitsiz: Araban eta Bizkaian nabarmen jaitsi ziren ehunekotan eta Gipuzkoan (%-7) apalkiago.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gauldiak 10.595 izan dira urtarrilean, lehengo urteko hil berean baino %1 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboa izan da Araban (%72), baina negatiboa Bizkaian (%-23) eta Gipuzkoan (%-5).

Bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena handitu egin da Euskal AEn, 2008ko urtarrilaren aldean; hain zuzen, duela urtebete 2,52 eguneko batez bestekoa izan zen eta aurtengoan 2,56koa. Bilakaera positibo hau batez ere Araban, eta baita Bizkaian ere izan da; Gipuzkoan jaitsi egin da (%-11).

Plazen betetze-maila, azkenik, %-9 jaitsi da, %10,73tik %9,81era, Bizkaian (%-28) eta Gipuzkoan (%-15) izandakoen ondorioz; Araban %52 hazi da, %12,88raino.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	2009 01	%	2008 01	%	Δ %	2009 01	%	2008 01	%	Δ %	2009 01	%	2008 01	%	Δ %	2009 01	%	2008 01	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	182.863	100	218.959	100	-16	25.834	100	32.764	100	-21	90.208	100	106.809	100	-16	66.821	100	79.386	100	-16
Estatukoak	136.629	75	159.006	73	-14	19.761	76	25.118	77	-21	66.571	74	76.812	72	-13	50.297	75	57.076	72	-12
Atzerrikoak	46.234	25	59.953	27	-23	6.073	24	7.646	23	-21	23.637	26	29.997	28	-21	16.524	25	22.310	28	-26
Hiriburua	114.948	63	135.344	62	-15	20.848	81	25.035	76	-17	59.471	66	69.194	65	-14	34.629	52	41.115	52	-16
Litoral	12.267	7	18.505	8	-34	-	-	-	-	-	4.998	6	5.960	6	-16	7.269	11	12.545	16	-42
Barnealdea	55.648	30	65.110	30	-15	4.986	19	7.729	24	-35	25.739	29	31.655	30	-19	24.923	37	25.726	32	-3
BIDAIARIEN SARRERAK	100.983	100	119.493	100	-15	14.225	100	19.511	100	-27	51.430	100	57.593	100	-11	35.328	100	42.389	100	-17
Estatukoak	77.543	77	90.021	75	-14	10.969	77	15.231	78	-28	39.882	78	43.785	76	-9	26.692	76	31.005	73	-14
Atzerrikoak	23.440	23	29.472	25	-20	3.256	23	4.280	22	-24	11.548	22	13.808	24	-16	8.636	24	11.384	27	-24
Hiriburua	62.903	62	74.083	62	-15	11.087	78	14.473	74	-23	32.559	63	36.770	64	-11	19.257	55	22.840	54	-16
Litoral	8.063	8	9.503	8	-15	-	-	-	-	-	3.080	6	3.113	5	-1	4.983	14	6.390	15	-22
Barnealdea	30.017	30	35.907	30	-16	3.138	22	5.038	26	-38	15.791	31	17.710	31	-11	11.088	31	13.159	31	-16
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,81		1,83		-1	1,82		1,68		8	1,75		1,85		-5	1,89		1,87		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	26,09		33,25		-22	23,95		33,33		-28	26,14		33,39		-22	26,97		33,03		-18
Hiriburua	28,86		35,97		-20	28,74		36,23		-21	28,89		36,31		-20	28,89		35,25		-18
Litoral	19,35		28,43		-32	-		-		-	17,13		24,12		-29	21,24		31,06		-32
Barnealdea	23,27		29,99		-22	14,11		26,47		-47	23,38		30,26		-23	26,61		30,88		-14
BETETZE-MAILA GELAKA	33,87		43,22		-22	31,95		41,06		-22	34,89		44,87		-22	33,28		41,81		-20
Hiriburua	37,20		47,10		-21	39,51		45,17		-13	37,70		49,27		-23	34,90		44,62		-22
Litoral	24,63		32,64		-25	-		-		-	22,32		31,35		-29	26,61		33,44		-20
Barnealdea	30,38		39,09		-22	16,46		29,86		-45	32,53		39,70		-18	33,44		41,63		-20
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	10.595	100	10.511	100	1	2.704	100	1.573	100	72	2.575	100	3.344	100	-23	5.316	100	5.594	100	-5
Estatukoak	8.950	84	7.703	73	16	2.472	91	1.253	80	97	2.249	87	2.583	77	-13	4.229	80	3.867	69	9
Atzerrikoak	1.645	16	2.808	27	-41	232	9	320	20	-28	326	13	761	23	-57	1.087	20	1.727	31	-37
BIDAIARIEN SARRERAK	4.146	100	4.178	100	-1	947	100	808	100	17	1.007	100	1.319	100	-24	2.192	100	2.051	100	7
Estatukoak	3.910	94	3.788	91	3	933	99	694	86	34	958	95	1.230	93	-22	2.019	92	1.864	91	8
Atzerrikoak	236	6	390	9	-39	14	1	114	14	-88	49	5	89	7	-45	173	8	187	9	-7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,56		2,52		2	2,86		1,95		47	2,56		2,54		1	2,43		2,73		-11
BETETZE-MAILA PLAZAKA	9,81		10,73		-9	12,88		8,49		52	7,29		10,10		-28	10,29		12,08		-15
BETETZE-MAILA GELAKA	12,12		12,89		-6	16,45		9,04		82	9,21		12,64		-27	12,43		14,62		-15

Fuente: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp